

## LANBAI IV azoka egin zen joan zen ostegunean

2016/06/13

Ekainaren 9an, osteguna, MONDRAGON UNIBERTSITATEAK eta Arrasateko Udala, LANBIDEren babesarekin, LANBAI IV enplegu eta formazio azoka ospatu zuten.

Ekainaren 6 eta 8a bitartean egin ziren tailerretaz gain, ekainaren 9an, azoka egin zen.

Tailerretan, marka pertsonala, curriculumak, elkarrizketak eta hautaketa prozesuak landu ziren. Azokan berriz, 50 enpresa eta erakunde inguru elkartu ziren, lan poltsa, beka eta laguntza programen informazioa emateko eta curriculumak jaso eta elkarrizketak egiteko.

Aipatu beharekoa da, curriculumak jaso eta elkarrizketak egitera etorritzen 43 enpresen artean, 30ek, lan eskaintza zehatzak ekarri zituztela, profil egokiak kontratatu ahal izateko.

Azokaren hirugarren edizioaren ondoren, 28 kontratu gauzatu ziren eta aurtengo edizioan, oraindik kopuru altuagoa lortzea espero dugu.

Azoka 14:45etan inauguratu zen eta horretarako, MONDRAGON UNIBERTSITATEATEko errektorea, Vicente Atxa eta errektoreroidea, Jon Altuna egon ziren eta beraiekin batera, Arrasateko alkatesa Maria Ubarrechena eta LANBIDEko zuzendari orokorra Adolfo Alustiza egon ziren.

